- V_{min} : Amerisolar 24 V (330 W) moduluaren tentsioa minimoa. (24 V)

Egituraketa hau egokia da, $195 \text{ V} < 484,9 \text{ V} < 550 \text{ V}$ eta $195 \text{ V} < 312 \text{ V} < 550 \text{ V}$ baitira, orduan, Amerisolar 24 V (330 W) motako **91 panel fotovoltaiko** erabiliko dira.

Instalatutako potentzia fotovoltaikoa:

$$P_{FV} = N_T \cdot W_p = 91 \cdot 330 \text{ W} = 30030 \text{ W} \quad (15)$$

- P_{FV} : Instalaturako potentzia fotovoltaikoa. (W)
- N_T : Instalaturako den moduluen kopurua. (91)
- W_p : Amerisolar 24 V (330 W) moduluaren potentzia nominala. (330 W)

Instalatutako potentzia fotovoltaikoa 30030 W izango da.

Schneider XW MPPT 80 600 erreguladoreak gehienezko karga intentsitatea 80 A da, eta potentzia 4800 W, beraz, erreguladore kopurua:

$$N_{erreg} = \frac{P_{FV}}{P_R} = \frac{30030 \text{ W}}{4800 \text{ W}} = 6,25 \rightarrow 7 \quad (16)$$

- N_{erreg} : Karga erreguladore kopuru minimoa.
- P_{FV} : Instalaturako potentzia fotovoltaikoa. (30030 W)
- P_R : Schneider XW MPPT 80 600 erreguladorearen potentzia maximoa. (4800 W)

Amerisolar 24 V (330 W) moduluarekin Schneider XW MPPT 80 600 motako **7 karga erreguladore** behar izango dira, paraleloan konektatuko direnak.

3.2.3.3.3 Studer MPPT VS-120 48V

Seriean konektatuko diren moduluen kalkulua:

$$N_{\text{serieM}} = \frac{V_{\text{OCmax}}}{V_{\text{OCmodulu}}} = \frac{900 \text{ V}}{45,9 \text{ V}} = 19,6 \rightarrow 19 \quad (10)$$

- N_{serieM} : Seriean konektatuko diren moduluak.
- V_{OCmax} : Studer MPPT VS-120 48V karga erreguladoreak jasan dezakeen tentsio maximoa, zirkuitu-laburreko tentsioa. (900 V)
- V_{OCmodulu} : Amerisolar 24 V (330 W) moduluak jasan dezakeen tentsio maximoa, zirkuitu-laburreko tentsioa. (45,9 V)

Karga erreguladoreak jasan dezakeen tentsio maximoa inoiz gaindituko ez denaren konprobaketa:

$$V_{\text{OCg}} = N_{\text{serieM}} \cdot V_{\text{OCmodulu}} = 19 \cdot 45,9 = 872,1 \text{ V} \quad (11)$$

- V_{OCg} : Zirkuitu-laburrean moduluek guztira sortutako tentsioa. (V)
- N_{serieM} : Seriean konektatuko diren moduluak. (19)
- V_{OCmodulu} : Amerisolar 24 V (330 W) moduluak jasan dezakeen tentsio maximoa, zirkuitu-laburreko tentsioa. (45,9 V)

Karga erreguladorearen tentsio maximoa ez da inoiz gaindituko, $872,1 \text{ V} > 900 \text{ V}$ baita.

Paraleloan konektatuko diren moduluen kalkulua:

$$N_{\text{paralelo}} = \frac{N}{N_{\text{serieM}}} = \frac{90}{19} = 4,74 \rightarrow 5 \quad (12)$$

- N_{paralelo} : Paraleloan konektatuko den adar kopurua.
- N : Beharrezko modulu kopurua, 3.3.1 atalean kalkulaturia. (90)
- N_{serieM} : Seriean konektatuko diren moduluak. (19)

Guztira:

$$N_T = N_{\text{serieM}} \cdot N_{\text{paralelo}} = 19 \cdot 5 = 95 \quad (13)$$

- N_T : Instalaturiko den moduluen kopurua.
- N_{serieM} : Seriean konektatuko diren moduluak. (19)
- N_{paralelo} : Paraleloan konektatuko den adar kopurua. (5)

Studer MPPT VS-120 48V karga erreguladorearekin Amerisolar 24 V (330 W) motako 95 panel fotovoltaiko erabiliko dira oraingoz.

Karga erreguladore honen funtzionamendu tentsioa 500 eta 750 V bitartekoa dela jakinik, 95 panelen funtzionamendu tentsioa maximoa (potentzia nominaleko tentsioa) eta minimoa (moduluaren tentsioa) balio horien artean daudela baieztatu behar da:

$$V_{T\text{Max}} = N_{\text{serieM}} \cdot V_{\text{mp}} = 19 \cdot 37,3 \text{ V} = 708,7 \text{ V} \quad (14)$$

- $V_{T\text{Max}}$: Panelek potentzia nominalean duten tentsio totala. (V)
- N_{serieM} : Seriean konektatuko diren moduluak. (19)
- V_{mp} : Amerisolar 24 V (330 W) moduluaren tentsioa potentzia nominalean. (37,3 V)

$$V_{T\text{Min}} = N_{\text{serieM}} \cdot V_{\text{mp}} = 19 \cdot 24 \text{ V} = 456 \text{ V} \quad (17)$$

- V_{TMin} : Panelen funtzionamendu tentsio minimoa. (V)
- N_{serieM} : Seriean konektatuko diren moduluak. (19)
- V_{min} : Amerisolar 24 V (330 W) moduluaren tentsioa minimoa. (24 V)

Egituraketa hau ez da egokia, $500 \text{ V} < 708,7 \text{ V} < 750 \text{ V}$ baita, baina $456 \text{ V} < 500 \text{ V}$ da, orduan, egituraketa berri bat bilatu behar da.

Horretarako, funtzionamendu tentsio minimoa betetzen duen seriean konektaturiko modulu kopuru minimoa kalkulatu da:

$$N_{serieM} = \frac{V_{Tmin}}{V_{OCmodulu}} = \frac{500 \text{ V}}{24 \text{ V}} = 20,83 \rightarrow 21 \quad (18)$$

- N_{serieM} : Seriean konektatuko diren moduluak.
- V_{MinR} : Studer MPPT VS-120 48V erreguladorearen funtzionamendu tentsio minimoa. (500 V)
- V_{min} : Amerisolar 24 V (330 W) moduluaren tentsioa minimoa. (24 V)

Studer MPPT VS-120 48V erreguladorearen funtzionamendu tentsio minimoa lortzeko, gutxienez seriean konektaturiko 21 Amerisolar 24 V (330 W) modulu behar dira, eta erreguladore honen tentsio maximoa (900 V_{oc}) ez gaintzeko gehienez 19 modulu behar dira, (10) ekuazioan kalkulatu, beraz, ondorioztatzen da ezin izango dela Studer MPPT VS-120 48V karga erreguladorea Amerisolar 24 V (330 W) modulu fotovoltaikoarekin erabili, ezin baita bere funtzionamendu egokia ziurtatu.

3.2.3.4 Inbertsoreen kalkulua

Potentzia eta baterien tentsioa berdinak direnez, inbertsoreen kalkulua 3.1.4 atalaren berdina izango da, eta hortaz, VICTRON Phoenix 48V 5000W motako **3 inbertsore** erabiliko dira.

3.3 Laburpena

Laburbilduz, hauek dira lortutako emaitzak:

	Bauer 12 V			Amerisolar 24 V (280 W)			Amerisolar 24 V (330 W)		
	Victron SmartSolar MPPT 250V 100A	SCHNEIDER XW MPPT 80 600	Studer MPPT VS-120 48V	Victron SmartSolar MPPT 250V 100A	SCHNEIDER XW MPPT 80 600	Studer MPPT VS-120 48V	Victron SmartSolar MPPT 250V 100A	SCHNEIDER XW MPPT 80 600	Studer MPPT VS-120 48V
Plakak	17.756,2 €	17.986,8 €	-	14.374,8 €	15.972,0 €	17.603,1 €	13.776,3 €	13.929,4 €	-
Bateriak	118.240,0 €	118.240,0 €	-	118.240,0 €	118.240,0 €	118.240,0 €	118.240,0 €	118.240,0 €	-
Erreguladoreak	6.759,0 €	7.875,0 €	-	5.793,4 €	7.875,0 €	8.545,0 €	5.793,4 €	7.875,0 €	-
Inbertsoreak	5.399,6 €	5.399,6 €	-	5.399,6 €	5.399,6 €	5.399,6 €	5.399,6 €	5.399,6 €	-
Guztira	148.154,8 €	149.501,4 €	-	143.807,9 €	147.486,6 €	149.787,7 €	143.209,4 €	145.444,0 €	-

Taula 5: Hiru moduluekin lortutako sorgailu fotovoltaikoaren kostua

Aukerarik honena 90 Amerisolar 24 V (330 W) plaka eta 6 Victron SmartSolar MPPT 250V 100A karga erreguladore erabiltzea da, prezio baxueneko aukera baita. Nahiz eta beste kasu batzuetan baino karga erreguladore gehiago behar, plaka kopurua txikiena da, eta hortaz, prezio txikiena lortzen da, 143.209,4 €-koa alegia.











3.4 Kableen sekzioa

Behin instalazio fotovoltaikoaren gailu guztiak definituta dauden, kableen sekzioen kalkulura ekin daiteke. Instalazioaren kableen sekzioen kalkulurako bi baldintza hartu behar dira kontuan, BTEE-k exijitzen dituenak:

- a) Onarturiko intentsitate maximoa ez gainditzea

Intentsitate hau gainditzea ez da gomendatzen erroalea gehiegi berotu daiteke eta. Balio hau UNE-HD 60364-5-52 arauaren B.52-1 eta C.52-1 bis taulen arabera kalkulatu da, eta kable kopuru eta isolamendu motaren arabera da.

Proiektuko kableak unipolarrak dira, eta horma batera itsatsiak eramaten dira. Gainera, bi erroale dira, PVC isolamendua dutenak, beraz, 6. taularen arabera, C.52-1 bis taulan 8a zutabea erabili da.

Instalación de referencia		Tabla y columna				
		Intensidad admisible para los circuitos simples				
		Aislamiento PVC		Aislamiento XLPE o EPR		
		Número de conductores				
		2	3	2	3	
	Conductores aislados en un conducto en una pared térmicamente aislante	A1	Tabla C.52-1 bis columna 4	Tabla C.52-1 bis columna 3	Tabla C.52-1 bis columna 7b	Tabla C.52-1 bis columna 6b
	Cable multiconductor en un conducto en una pared térmicamente aislante	A2	Tabla C.52-1 bis columna 3	Tabla C.52-1 bis columna 2	Tabla C.52-1 bis columna 6b	Tabla C.52-1 bis columna 5b
	Conductores aislados en un conducto sobre una pared de madera o mampostería	B1	Tabla C.52-1 bis columna 6a	Tabla C.52-1 bis columna 5a	Tabla C.52-1 bis columna 10b	Tabla C.52-1 bis columna 8b
	Cable multiconductor en un conducto sobre una pared de madera o mampostería	B2	Tabla C.52-1 bis columna 5a	Tabla C.52-1 bis columna 4	Tabla C.52-1 bis columna 8b	Tabla C.52-1 bis columna 7b
	Cables unipolares o multipolares sobre una pared de madera o mampostería	C	Tabla C.52-1 bis columna 8a	Tabla C.52-1 bis columna 6a	Tabla C.52-1 bis columna 11	Tabla C.52-1 bis columna 9b
	Cable multiconductor en conductos enterrados	D1	Tabla C.52-2 bis columna 3	Tabla C.52-2 bis columna 4	Tabla C.52-2 bis columna 5	Tabla C.52-2 bis columna 6
	Cables con cubierta unipolares o multipolares directamente en el suelo	D2				
	Cable multiconductor al aire libre Distancia al muro no inferior a 0,3 veces el diámetro del cable	E	Tabla C.52-1 bis columna 9a	Tabla C.52-1 bis columna 7a	Tabla C.52-1 bis columna 12	Tabla C.52-1 bis columna 10b
	Cables unipolares en contacto al aire libre Distancia al muro no inferior al diámetro del cable	F	Tabla C.52-1 bis columna 10a	Tabla C.52-1 bis columna 8a	Tabla C.52-1 bis columna 13	Tabla C.52-1 bis columna 11
	Cables unipolares espaciados al aire libre Distancia entre ellos como mínimo el diámetro del cable	G	Ver UNE-HD 60364-5-52			

Taula 6: UNE-HD 60364-5-52 arauaren B.52-1 taula

Kableak kobrezkoak dira, hortaz, C-52-1 bis taulako goiko ataleko intentsitate maximoak erabili dira kableen sekzioen kalkulurako, 7. taulan ageriak:

Método de instalación de la tabla B.52-1	Número de conductores cargados y tipos de aislamiento																	
	A1	PVC 3	PVC 3	PVC 2				XLPE 3	XLPE 2									
A2	PVC 3	PVC 2			XLPE 3	PVC 2												
B1				PVC 3	PVC 2				XLPE 3			XLPE 2						
B2			PVC 3	PVC 2				XLPE 3	XLPE 2									
C					PVC 3				PVC 2		XLPE 3		XLPE 2					
E							PVC 3			PVC 2		XLPE 3	XLPE 2					
F									PVC 3		PVC 2	XLPE 3	XLPE 2					
1	2	3	4	5a	5b	6a	6b	7a	7b	8a	8b	9a	9b	10a	10b	11	12	13
Sección mm²																		
Cobre																		
1,5	11	11,5	12,5	13,5	14	14,5	15,5	16	16,5	17	17,5	19	20	20	20	21	23	-
2,5	15	15,5	17	18	19	20	20	21	22	23	24	26	27	26	28	30	32	-
4	20	20	22	24	25	26	28	29	30	31	32	34	36	36	38	40	44	-
6	25	26	29	31	32	34	36	37	39	40	41	44	46	46	49	52	57	-
10	33	36	40	43	45	46	49	52	54	54	57	60	63	65	68	72	78	-
16	45	48	53	59	61	63	66	69	72	73	77	81	85	87	91	97	104	-
25	59	63	69	77	80	82	86	87	91	95	100	103	108	110	115	122	135	146
35	-	-	-	95	100	101	106	109	114	119	124	127	133	137	143	153	168	182
50	-	-	-	116	121	122	128	133	139	145	151	155	162	167	174	188	204	220
70	-	-	-	148	155	155	162	170	178	185	193	199	208	214	223	243	262	282
95	-	-	-	180	188	187	196	207	216	224	234	241	252	259	271	298	320	343
120	-	-	-	207	217	216	226	240	251	260	272	280	293	301	314	350	373	397
150	-	-	-	-	247	259	276	289	299	313	322	337	343	359	401	430	458	-
185	-	-	-	-	281	294	314	329	341	356	368	385	391	409	460	493	523	-
240	-	-	-	-	330	345	368	385	401	419	435	455	468	489	545	583	617	-
Aluminio																		
2,5	11,5	12	13	14	15	16	16,5	17	17,5	18	19	20	20	20	21	23	25	-
4	15	16	17	19	20	21	22	22	23	24	25	26	28	27	29	31	34	-
6	20	20	22	24	25	27	29	28	30	31	32	33	35	36	38	40	44	-
10	26	27	31	33	35	38	40	40	41	42	44	46	49	50	52	56	60	-
16	35	37	41	46	48	50	52	53	55	57	60	63	66	66	70	76	82	-
25	46	49	54	60	63	63	66	67	70	72	75	78	81	84	88	91	98	110
35	-	-	-	74	78	78	81	83	87	89	93	97	101	104	109	114	122	136
50	-	-	-	90	94	95	100	101	106	108	113	118	123	127	132	140	149	167
70	-	-	-	115	121	121	127	130	136	139	145	151	158	162	170	180	192	215
95	-	-	-	140	146	147	154	159	166	169	177	183	192	197	206	219	233	262
120	-	-	-	161	169	171	179	184	192	196	205	213	222	228	239	254	273	306
150	-	-	-	-	196	205	213	222	227	237	246	257	264	276	294	314	353	-
185	-	-	-	-	222	232	243	254	259	271	281	293	301	315	337	361	406	-
240	-	-	-	-	261	273	287	300	306	320	332	347	355	372	399	427	482	-

Taula 7: UNE-HD 60364-5-52 arauaren C.52-1 bis taula

b) Tentsio erorketa maximoa ez gainditzea

BTEE-ren ITC-BT-40-aren arabera tentsio erorketa sorgailuaren eta barne instalazioaren artean, hau da, karga puntuen artean, %1,5 baino gutxiagoa izan behar da. Kableak zatika banatzen direnez, zati bakoitzari tentsio erorketa ehuneko bat erantsiko zaio, eta totala %1,5 baino txikiagoa lortzen da horrela. Zatien erorketa tentsioak 9 eta 15. taulen artean aurki daitezke.

Tentsio erorketa definitu batetik kable baten sekzioa kalkulatzeko hurrengo espresioa erabiltzen da:

$$S = \frac{2 \cdot L \cdot I}{\sigma \cdot \Delta U} \quad (21)$$

- S: Kablearen sekzioa. (mm)
- L: Kablearen luzera. (m)
- I: Kablearen intentsitatea. (A)
- σ : Kablearen materialaren konduktibitatea. (m/Ω·mm²)
- ΔU : Erorketa tentsioa. (V)

Aukeratutako kablearen materiala kobreaenez, kobreakon konduktibitatea 56 m/Ω·mm²-koa da 20 °C tenperaturan, 8. taulan ikus daitekeen moduan:

Material	γ_{20}	γ_{70}	γ_{90}
Cobre	56	48	44
Aluminio	35	30	28
Temperatura	20°C	70°C	90°C

Taula 8: Kableen material desberdinen konduktibitatea

3.4.1 String – 1. Konexio kutxa

Zati honetarako tentsio erorketa maximoa %0,85 da. Kableek eramango duten korrante maximoa zirkuitulaburrean da, panelen I_{sc} , 3. taulan aurki daitekeena, eta 9,26 A-ko balioa daukana. Aldi berean, tentsio maximoa V_{mp} da, beste hitzetan, potentzia nominaleko tentsioa, 186,5 V dena string bakoitzeko, seriean 5 panel baitaude. Gainera, string bakoitzaren luzera string bakoitzeko urruneko panelak markatzen du.

Behin sekzio teorikoa kalkulatua, balio hori baino handiagoa den UNE-HD 60364-5-52 arauko C.52-1 bis taulako hurrengo sekzio normalizatua aukeratzen da. Ondoren, taula horretan, eranskineko 7. Taulan, sekzio horren onarturiko intentsitate maximoa hartzen da, eta kablearena baino txikiagoa bada, sekzioaren kalkulua zuzena da.

Talde	String	L [m]	V_{mp} [V]	I_{sc} [A]	σ_{cu} [Ω_{mm^2} / m]	ΔV Teorikoa [%]	ΔV Teorikoa [V]	Sekzio teorikoa [mm^2]	Sekzio norm. [mm^2]	ΔV [V]	ΔV [%]	I_{max} [A]	Sekzio norm. [mm^2]
1	1	11,50	186,50	9,26	56	0,85	1,59	2,40	2,5	1,52	0,816	23	2,5
	2	6,00	186,50	9,26	56	0,85	1,59	1,25	2,5	0,79	0,426	23	2,5
	3	9,50	186,50	9,26	56	0,85	1,59	1,98	2,5	1,26	0,674	23	2,5
2	4	14,50	186,50	9,26	56	0,85	1,59	3,02	4	1,20	0,643	31	4
	5	19,50	186,50	9,26	56	0,85	1,59	4,07	6	1,07	0,576	40	6
	6	25,00	186,50	9,26	56	0,85	1,59	5,22	6	1,38	0,739	40	6
3	7	29,50	186,50	9,26	56	0,85	1,59	6,15	10	0,98	0,523	54	10
	8	50,00	186,50	9,26	56	0,85	1,59	10,43	16	1,03	0,554	73	16
	9	45,00	186,50	9,26	56	0,85	1,59	9,39	10	1,49	0,798	54	10
4	10	39,50	186,50	9,26	56	0,85	1,59	8,24	10	1,31	0,700	54	10
	11	42,50	186,50	9,26	56	0,85	1,59	8,87	10	1,41	0,754	54	10
	12	48,00	186,50	9,26	56	0,85	1,59	10,01	16	0,99	0,532	73	16
5	13	52,50	186,50	9,26	56	0,85	1,59	10,95	16	1,09	0,582	73	16
	14	73,50	186,50	9,26	56	0,85	1,59	15,33	16	1,52	0,815	73	16
	15	68,00	186,50	9,26	56	0,85	1,59	14,19	16	1,41	0,754	73	16
6	16	63,00	186,50	9,26	56	0,85	1,59	13,14	16	1,30	0,698	73	16
	17	65,00	186,50	9,26	56	0,85	1,59	13,56	16	1,34	0,720	73	16
	18	70,50	186,50	9,26	56	0,85	1,59	14,71	16	1,46	0,781	73	16

Taula 9: Lehenengo zatiaren kableen kalkuluak

3.4.2 1.konexio kutxa – karga erreguladorea

Zati honetarako tentsio erorketa maximoa %0,035 da. Aurreko ataleko hiru kable elkartzen ditu zati honetako kable bakoitzak, beraz, intentsitatea hirukoitza da, eta tentsioa, aldiz, berdina.

Kablea	L [m]	V _{mp} [V]	I _{sc} [A]	σ_{cu} [Ω_{mm^2} / m]	Δv Teorikoa [%]	Δv Teorikoa [V]	Sekzio teorikoa [mm ²]	Sekzio norm. [mm ²]	Δv [V]	Δv [%]	I _{max} [A]	Sekzio norm. [mm ²]
2.1	1,00	186,50	27,78	56	0,035	0,07	15,20	16	0,06	0,033	73	16
2.2	1,00	186,50	27,78	56	0,035	0,07	15,20	16	0,06	0,033	73	16
2.3	1,00	186,50	27,78	56	0,035	0,07	15,20	16	0,06	0,033	73	16
2.4	1,00	186,50	27,78	56	0,035	0,07	15,20	16	0,06	0,033	73	16
2.5	1,00	186,50	27,78	56	0,035	0,07	15,20	16	0,06	0,033	73	16
2.6	1,00	186,50	27,78	56	0,035	0,07	15,20	16	0,06	0,033	73	16

Taula 10: Bigarren zatiaren kableen kalkuluak

3.4.3 Karga erreguladorea – 2. Konexio kutxa

Zati honetarako tentsio erorketa maximoa %0,12 da. Karga erreguladoreen intentsitate korrante maximoa 100 A denez, 100 A-ko korrante maximoa jasaten dute kableek. Tentsioa, berriz, baterien kargarako tentsio maximoa da, 57,6 V dena.

Kablea	L [m]	V _{mp} [V]	I _{max} [A]	σ_{cu} [Ω_{mm^2} / m]	Δv Teorikoa [%]	Δv Teorikoa [V]	Sekzio teorikoa [mm ²]	Sekzio norm. [mm ²]	Δv [V]	Δv [%]	I _{max} [A]	Sekzio norm. [mm ²]
3.1	1,20	57,60	100	56	0,12	0,07	62,00	70	0,06	0,106	185	70
3.2	1,00	57,60	100	56	0,12	0,07	51,67	70	0,05	0,089	185	70
3.3	0,50	57,60	100	56	0,12	0,07	25,83	35	0,05	0,089	119	35
3.4	0,50	57,60	100	56	0,12	0,07	25,83	35	0,05	0,089	119	35
3.5	1,00	57,60	100	56	0,12	0,07	51,67	70	0,05	0,089	185	70
3.6	1,20	57,60	100	56	0,12	0,07	62,00	70	0,06	0,106	185	70

Taula 11: Hirugarren zatiaren kableen kalkuluak

3.4.4 2.konexio kutxa – bateriak

Zati honetarako tentsio erorketa maximoa %0,21 da. Lau bateria daudenez, paraleloan konektatuak daudenak, lau kable irteten dira 2. konexio kutxatik. Hortaz, jasango duten intentsitate maximoa aurreko ataleko totalaren berdina da, baina lau kabletan banatua. Tentsioa, baterien kargarako denez, aurreko atalekoaren berdina da, 57,6 V. Kasu honetan, 4.2 eta 4.3 kableek onarturiko intentsitate maximoa gainditzen dute tentsio erorketarekin kalkulaturiko sekzioarekin. Horregatik hurrengo sekzio normalizatua hartu da, eta horrekin intentsitate maximoaren frogapena berrigo egin.

Kable a	L [m]	V _{mp} [V]	I _{max} [A]	σ _{cu} [Ω _{mm²} / m]	Δv Teorikoa [%]	Δv Teorikoa [V]	Sekzio teorikoa [mm ²]	Sekzio norm. [mm ²]	Δv [V]	Δv [%]	I _{max} [A]	Sekzio norm. [mm ²]	I _{max} berria [A]	Sekzio norm. berria [mm ²]
4.1	1,50	57,60	150,0	56	0,21	0,12	66,43	70	0,11	0,199	185	70		
4.2	1,00	57,60	150,0	56	0,21	0,12	44,29	50	0,11	0,186	145	50	185	70
4.3	1,00	57,60	150,0	56	0,21	0,12	44,29	50	0,11	0,186	145	50	185	70
4.4	1,50	57,60	150,0	56	0,21	0,12	66,43	70	0,11	0,199	185	70		

Taula 12: Laugarren zatiaren kableen kalkuluak

3.4.5 Bateriak – 3. Konexio kutxa

Zati honetarako tentsio erorketa maximoa %0,1 da. Zati honetatik aurrera karga estazioek definitzen dituzte kableen intentsitate eta tentsioaren balioak, eta ez sorgailu elektrikoak. Lau kable ditu zati honek, lau baterien deskargarakoak direnak. Inbertsoreak 48 V-ra lan egiten duenez, tentsio hori eramango dute kableek, eta kontsumo maximoa 11.085 W denez, (1) ekuazioan kalkulaturik, bakoitzak jasango duen intentsitate maximoa 57,73 A da.

Kablea	L [m]	V _{max} [V]	I _{max} [A]	σ _{cu} [Ω _{mm²} / m]	Δv Teorikoa [%]	Δv Teorikoa [V]	Sekzio teorikoa [mm ²]	Sekzio norm. [mm ²]	Δv [V]	Δv [%]	I _{max}	Sekzio norm. [mm ²]
5.1	1,00	48,00	57,73	56	0,10	0,05	42,95	50	0,04	0,086	145	50
5.2	1,00	48,00	57,73	56	0,10	0,05	42,95	50	0,04	0,086	145	50
5.3	1,00	48,00	57,73	56	0,10	0,05	42,95	50	0,04	0,086	145	50
5.4	1,00	48,00	57,73	56	0,10	0,05	42,95	50	0,04	0,086	145	50

Taula 13: Bosgarren zatiaren kableen kalkuluak

3.4.6 3.konexio kutxa – karga inbertsorea

Zati honetarako tentsio erorketa maximoa %0,085 da. Hiru karga inbertsore daudenez, hiru kable ditu zati honek, eta beraz, intentsitate totala aurreko atalekoaren berdina da, hiru kabletan banatua. Tentsioa, berriz ere, 48 V-koa da, inbertsoreen funtzionamendu tentsioa hain zuzen ere.

Kablea	L [m]	V _{max} [V]	I _{max} [A]	σ _{cu} [Ω _{mm²} / m]	ΔV Teorikoa [%]	ΔV Teorikoa [V]	Sekzio teorikoa [mm ²]	Sekzio norm. [mm ²]	ΔV [V]	ΔV [%]	I _{max} [A]	Sekzio norm. [mm ²]
6.1	1,00	48,00	76,97	56	0,085	0,04	67,38	70	0,04	0,082	185	70
6.2	0,50	48,00	76,97	56	0,085	0,04	33,69	35	0,04	0,082	119	35
6.3	1,00	48,00	76,97	56	0,085	0,04	67,38	70	0,04	0,082	185	70

Taula 14: Seigarren zatiaren kableen kalkuluak

3.4.7 Karga inbertsorea – karga estazioa

Zati honetarako tentsio erorketa maximoa %0,1 da. Korrante alternoko atala da hau, eta hortaz, tentsioa 230 V-koa da, karga estazioen funtzionamendu tentsioa. Aldi berean, karga estazioak karga geldo edo konbentzionalekoak direnez, 16 A-ko intentsitate maximoa erabiltzen dute.

Kablea	L [m]	V _{max} [V]	I _{max} [A]	σ _{cu} [Ω _{mm²} / m]	ΔV Teorikoa [%]	ΔV Teorikoa [V]	Sekzio teorikoa [mm ²]	Sekzio norm. [mm ²]	ΔV [V]	ΔV [%]	I _{max} [A]	Sekzio norm. [mm ²]
7.1	5,50	230,00	16,06	56	0,10	0,23	13,72	16	0,20	0,086	73	16
7.2	5,00	230,00	16,06	56	0,10	0,23	12,47	16	0,18	0,078	73	16
7.3	7,50	230,00	16,06	56	0,10	0,23	18,70	25	0,17	0,075	95	25

Taula 15: Zazpigarren zatiaren kableen kalkuluak

3.5 Babesak

3.5.1 Korronte zuzena

Korronte zuzenean erabilitako babesak fusibleak dira. Fusibleen kalkulurako bi baldintza bete behar dira:

$$I_B \leq I_n \leq I_Z \quad (22)$$

- I_B : Kablearen diseinuko korrontea. (A)
- I_n : Fusiblearen korronte nominala. (A)
- I_Z : Kablearen onarturiko intentsitate maximoa. (A)

Fusiblearen korronte nominalak normalizatuak daude eta 16. taulakoak dira:

2	4	6	10	16	20	25	35
40	50	63	80	100	125	160	200
250	315	400	425	500	630	800	1000

Taula 16: Fusibleen korronte nominal normalizatuak (A)

$$I_f \leq 1,45 \cdot I_Z \quad (23)$$

- I_f : Babesaren funtzionamendua ziurtatzen duen korrontea. (A)
- I_Z : Kablearen onarturiko intentsitate maximoa, 3.4 atalean kalkulatua. (A)

Babesaren funtzionamendua ziurtatzen duen korrontea UNE 20.460-5-523 arauko A.52-1 bis taulatik, proiektuko 17. taulatik kalkulatzen da:

I_n (A)	Tiempo convencional (h)	I_f Corriente convencional de fusión
$I_n \leq 4$	1	$2,1 I_n$
$4 < I_n \leq 16$	1	$1,9 I_n$
$16 < I_n \leq 63$	1	$1,8 I_n$
$63 < I_n \leq 160$	2	$1,8 I_n$
$160 < I_n \leq 400$	3	$1,8 I_n$
$400 < I_n$	4	$1,8 I_n$

Taula 17: Fusiblearen funtzionamendua ziurtatzen duen korrontearen kalkulua

Orduan, bi baldintzak betetzen dituen fusibleak zatika kalkulatu dira:

3.5.1.1 String – 1. Konexio kutxa

Aukeratutako fusiblearen intentsitate nominala 10 A da zati honetako kable guztientzat, dena dela sekzioa. Onarturiko intentsitate maximo txikiena duen sekzioa frogatuko da, 2,5 mm²-koa dena. Honek betetzen badu, gainontzeko kableek lehenengo zein bigarren baldintzak beteko dituztela ondorioztatu daiteke.

Lehenengo baldintza:

$$I_B \leq I_n \leq I_Z \quad (22)$$

$$9,26 \text{ A} \leq 10 \text{ A} \leq 23 \text{ A}$$

Lehenengo baldintza betetzen da, fusiblearen intentsitate nominala kablearen korronte maximoa baino handiagoa baita eta zati honetako kable guztien (2,5 mm², 4 mm², 6 mm², 10 mm² eta 16 mm²-ko sekziokoak) onarturiko intentsitate maximoa baino txikiagoa baita.

Bigarren baldintza:

$$I_f \leq 1,45 \cdot I_Z \quad (23)$$

Kableen intentsitatea 9,26 A izatean, $I_f = 1,9 \cdot I_n$ da, 17. taularen arabera, 19 A alegia.

$$19 \text{ A} \leq 1,45 \cdot 23 \text{ A}$$

$$19 \text{ A} \leq 33,35 \text{ A}$$

2,5 mm²-ko kableak betetzen du baldintza hau, beraz, zati honetako kable guztiek betetzen dituzte bi baldintzak.

3.5.1.2 1.konexio kutxa – karga erreguladorea

Aukeratutako fusiblearen intentsitate nominala 35 A da zati honetako kable guztientzat, sekzio berekoak direnak.

Lehenengo baldintza:

$$I_B \leq I_n \leq I_Z \quad (22)$$

$$27,78 \text{ A} \leq 35 \text{ A} \leq 73 \text{ A}$$

Lehenengo baldintza betetzen da, fusiblearen intentsitate nominala kablearen korrante maximoa baino handiagoa baita eta onarturiko intentsitate maximoa baino txikiagoa baita.

Bigarren baldintza:

$$I_f \leq 1,45 \cdot I_Z \quad (23)$$

Kableen intentsitatea 27,78 A izatean, $I_f = 1,6 \cdot I_n$ da, 17. taularen arabera, 56 A alegia.

$$56 \text{ A} \leq 1,45 \cdot 73 \text{ A}$$

$$56 \text{ A} \leq 108,85 \text{ A}$$

Bigarren baldintza betetzen ere betetzen da.

3.5.1.3 Karga erreguladorea – 2. Konexio kutxa

Aukeratutako fusiblearen intentsitate nominala 100 A da zati honetako kable guztientzat, dena dela sekzioa. Onarturiko intentsitate maximo txikiena duen sekzioa frogatuko da, 35 mm²-koa dena. Honek betetzen badu, gainontzeko kableek lehenengo zein bigarren baldintzak beteko dituztela ondorioztatu daiteke.

Lehenengo baldintza:

$$I_B \leq I_n \leq I_Z \quad (22)$$

$$100 \text{ A} \leq 100 \text{ A} \leq 119 \text{ A}$$

Lehenengo baldintza betetzen da, fusiblearen intentsitate nominala kablearen korrante maximoa baino handiagoa baita eta zati honetako kable guztien onarturiko intentsitate maximoa baino txikiagoa baita.

Bigarren baldintza:

$$I_f \leq 1,45 \cdot I_Z \quad (23)$$

Kableen intentsitatea 100 A izatean, $I_f = 1,6 \cdot I_n$ da, 17. taularen arabera, 160 A alegia.

$$160 \text{ A} \leq 1,45 \cdot 119 \text{ A}$$

$$160 \text{ A} \leq 172,55 \text{ A}$$

35 mm²-ko kableak betetzen du baldintza hau, beraz, zati honetako kable guztiek betetzen dituzte bi baldintzak.

3.5.1.4 2.konexio kutxa – bateriak

Aukeratutako fusiblearen intentsitate nominala 160 A da zati honetako kable guztientzat, sekzio berekoak direnak.

Lehenengo baldintza:

$$I_B \leq I_n \leq I_Z \quad (22)$$

$$150 \text{ A} \leq 160 \text{ A} \leq 185 \text{ A}$$

Lehenengo baldintza betetzen da, fusiblearen intentsitate nominala kablearen korrante maximoa baino handiagoa baita eta onarturiko intentsitate maximoa baino txikiagoa baita.

Bigarren baldintza:

$$I_f \leq 1,45 \cdot I_Z \quad (23)$$

Kableen intentsitatea 150 A izatean, $I_f = 1,6 \cdot I_n$ da, 17. taularen arabera, 256 A alegia.

$$256 \text{ A} \leq 1,45 \cdot 185 \text{ A}$$

$$256 \text{ A} \leq 268,25 \text{ A}$$

Bigarren baldintza betetzen ere betetzen da.

3.5.1.5 Bateriak – 3. Konexio kutxa

Aukeratutako fusiblearen intentsitate nominala 63 A da zati honetako kable guztientzat, sekzio berekoak direnak.

Lehenengo baldintza:

$$I_B \leq I_n \leq I_Z \quad (22)$$

$$57,73 \text{ A} \leq 63 \text{ A} \leq 145 \text{ A}$$

Lehenengo baldintza betetzen da, fusiblearen intentsitate nominala kablearen korrante maximoa baino handiagoa baita eta onarturiko intentsitate maximoa baino txikiagoa baita.

Bigarren baldintza:

$$I_f \leq 1,45 \cdot I_Z \quad (23)$$

Kableen intentsitatea 57,73 A izatean, $I_f = 1,6 \cdot I_n$ da, 17. taularen arabera, 100,8 A alegia.

$$100,8 \text{ A} \leq 1,45 \cdot 145 \text{ A}$$

$$100,8 \text{ A} \leq 210,25 \text{ A}$$

Bigarren baldintza betetzen ere betetzen da.

3.5.1.6 3.konexio kutxa – karga inbertsorea

Aukeratutako fusiblearen intentsitate nominala 80 A da zati honetako kable guztientzat, dena dela sekzioa. Onarturiko intentsitate maximo txikiena duen sekzioa frogatuko da, 35 mm²-koa dena. Honek betetzen badu, gainontzeko kableek lehenengo zein bigarren baldintzak beteko dituztela ondorioztatu daiteke.

Lehenengo baldintza:

$$I_B \leq I_n \leq I_Z \quad (22)$$

$$76,97 A \leq 80 A \leq 119 A$$

Lehenengo baldintza betetzen da, fusiblearen intentsitate nominala kablearen korronte maximoa baino handiagoa baita eta zati honetako kable guztien onarturiko intentsitate maximoa baino txikiagoa baita.

Bigarren baldintza:

$$I_f \leq 1,45 \cdot I_z \quad (23)$$

Kableen intentsitatea 76,97 A izatean, $I_f = 1,6 \cdot I_n$ da, 17. taularen arabera, 128 A alegia.

$$128 A \leq 1,45 \cdot 119 A$$

$$128 A \leq 172,55 A$$

35 mm²-ko kableak betetzen du baldintza hau, beraz, zati honetako kable guztiek betetzen dituzte bi baldintzak.

3.5.2 Korronte alternoa

Korronte zuzenean erabilitako babesak etengailu magnetotermikoak eta etengailu diferentzialak dira. Magnetotermikoen kalkulurako, fusibleen kalkulurako ez bezala, baldintza bakarra bete behar da:

$$I_B \leq I_n \leq I_z \quad (22)$$

- I_B : Kablearen diseinuko korrontea. (A)
- I_n : Fusiblearen korronte nominala. (A)
- I_z : Kablearen onarturiko intentsitate maximoa. (A)

Etengailu magnetotermikoen korronte nominalak normalizatuak daude eta fusibleen berdinak dira.

3.5.2.1 Karga inbertsorea – karga estazioa

Aukeratutako magnetotermikoaren intentsitate nominala 20 A da zati honetako kable guztientzat, dena dela sekzioa. Onarturiko intentsitate maximo txikiena duen sekzioa frogatuko da, 16 mm²-koa dena. Honek betetzen badu, gainontzeko kableek baldintza beteko dutela ondorioztatu daiteke.

Kalkulurako baldintza:

$$I_B \leq I_n \leq I_Z \quad (22)$$

$$16,06 \text{ A} \leq 20 \text{ A} \leq 73 \text{ A}$$

Baldintza betetzen da 16 mm²-ko kablearekin, magnetotermikoaren intentsitate nominala kablearen korrante maximoa baino handiagoa baita eta zati honetako kable guztien onarturiko intentsitate maximoa baino txikiagoa baita, hortaz zati honetako kable guztiek betetzen dute baldintza.

Etengailu diferentzialaren kalkulurako ITC-BT-25 instrukzio teknikoa hartzen da erreferentziatzat. Honek dio barne zirkuituetako etengailu diferentzialen intentsitate nominala gutxienez 25 A-koa izan behar dela, eta sentsibilitatea, berriz, 30 mA-koa. Korrante alternoko kableen intentsitate maximoa 16 A-koa denez, 25 A intentsitate nominaleko etengailu diferentzial bat ezartzea posible da. Sentsibilitateari dagokionez, 10 mA-koa izatea nahiago da, hezetasun altuko gunean kokatuko baita, eta horrela karga estazioen erabiltzaileen segurtasuna bermatzen da.

3.6 Lurrera jartzea

3.6.1 Elektrodoa

Elektrodoaren kalkulua BTEE-ren ITC-BT-18-aren arabera egiten da. Proiekturako, horizontalki lurperatutako eroale biluzia erabili da KZ eta KA-ko lurrera jartzeetarako. Instrukzio tekniko honen arabera, lurraren erresistibitatea jakiteko bere 4 taulako balioak erabili daitezke. Markesina kokatuta dagoen tokia 'beste lubeta'-tzat hartzen da. Hortaz, lurraren erresistibitatea 500 Ω·m-koa dela ondorioztatzen da.

Naturaleza del terreno	Valor medio de la resistividad Ohm.m
Terrenos cultivables y fértiles, terraplenes compactos y húmedos	50
Terraplenes cultivables poco fértiles y otros terraplenes	500
Suelos pedregosos desnudos, arenas secas permeables	3.000

Taula 18: ITC-BT-18-ren 4 taula

Elektrodo mota honekin lortzen den erresistentzia aipatutako instrukzio teknikoaren 5 taularen arabera kalkulatzen da:

Electrodo	Resistencia de Tierra en Ohm
Placa enterrada	$R = 0,8 \rho/P$
Pica vertical	$R = \rho/L$
Conductor enterrado horizontalmente	$R = 2 \rho/L$
ρ , resistividad del terreno (Ohm.m) P , perímetro de la placa (m) L , longitud de la pica o del conductor (m)	

Taula 19: ITC-BT-18-ren 5 taula

Beraz, erresistentzia honela kalkulatuko da:

$$R = \frac{2 \cdot \rho}{L} \quad (24)$$

Lurrera jartzearen kableen sekzioak ITC-BT-52 instrukzioaren arabera kalkulatzen dira. Honek bi eroale desberdintzen ditu: babes eroaleak (bornera doazenak) eta lurrerako eroaleak (bornetik elektrodora doazenak).

Babes eroaleak instrukzioaren 2 taularen arabera kalkulatzen dira:

Sección de los conductores de fase de la instalación S (mm²)	Sección mínima de los conductores de protección S_p (mm²)
S ≤ 16	S _p = S
16 < S ≤ 35	S _p = 16
S > 35	S _p = S/2

Taula 20: ITC-BT-18-ren 2 taula

Lurrerako eroaleak, aldiz, instrukzioaren 1 taularen arabera kalkulatzen dira:

TIPO	Protegido mecánicamente	No protegido mecánicamente
Protegido contra la corrosión*	Según apartado 3.4	16 mm ² Cobre 16 mm ² Acero Galvanizado
No protegido contra la corrosión		25 mm ² Cobre 50 mm ² Hierro

Taula 21: ITC-BT-18-ren 1 taula

3.6.2 Korrante zuzena

Korrante zuzeneko lurrera jartzerako 37 Ω-ko erresistentzia maximoa behar da. Beraz, elektrodoaren luzera:

$$R = \frac{2 \cdot \rho}{L} \quad (24)$$

$$L = \frac{2 \cdot 500 \Omega \cdot \text{m}}{37 \Omega} = 27,03 \text{ m} \rightarrow 30 \text{ m}$$

30 m-ko elektrodoa jartzea erabaki da. Hortaz, elektrodoaren erresistentzia berria hurrengoa da:

$$R = \frac{2 \cdot 500 \Omega \cdot \text{m}}{30 \text{ m}} = 33,33 \Omega \quad (24)$$

Korrante zuzeneko babes eroaleen sekzioak 20. taularen arabera kalkulatzen dira. Panelen ilara bakoitzeko eroale bat jarri da, ilarako sekzio handienaren arabera dena.

String-etako sekzio guztiak 16 mm^2 edo txikiagoak direnez, babes eroaleen sekzio minimoa $S_p=S$ da. Lehenengo ilarako S handienak 1 eta 2 string-ek dituzte, $2,5 \text{ mm}^2$ izanik. Bigarreneko S handienak 7 eta 10 string-ek, 10 mm^2 . Hirugarreneko S handienak 8,12,13 eta 16 string-ek, 16 mm^2 . Laugarreneko S handienak string guztiak dituzte, 16 mm^2 izanik.

KZ-ko lurrerako eroaleen sekzioak 21. taularen arabera kalkulatzen dira. Hauek korrosioaren aurka babesturik ez daudenez, 25 mm^2 -ko kobrezko eroaleak dira.

3.6.3 Korrante alternoa

Korrante alternoko lurrera jartzeko 100Ω -ko erresistentzia maximoa behar da. Beraz, elektrodoaren luzera:

$$R = \frac{2 \cdot \rho}{L} \quad (24)$$

$$L = \frac{2 \cdot 500 \Omega \cdot \text{m}}{100 \Omega} = 10 \text{ m}$$

10 m -ko elektrodoa jartzea erabaki da. Hortaz, elektrodoaren erresistentzia 100Ω -koa da.

Korrante alternoko babes eroaleen sekzioak 20. taularen arabera kalkulatzen dira. Hiru SAVE izatean, hiru kable daude, 16 mm^2 -ko bi eta 25 mm^2 -ko bat. Orduan, babes eroaleen sekzio minimoa $S_p=S$ da 16 mm^2 -koentzat eta $S_p=16$ 25 mm^2 -koarentzat. Hortaz, hiru babes eroaleak 16 mm^2 -koak dira.

KA-ko lurrerako eroaleen sekzioak 21. taularen arabera kalkulatzen dira. Hauek korrosioaren aurka babesturik ez daudenez, 25 mm^2 -ko kobrezko eroaleak dira.


4. Markesinaren kalkulua

4.1 Obraren deskribapena

Markesinak dituen dimentsioak hurrengoak dira:

Markesinaren luzera	62 m
Markesinaren zabalera	9,5 m
Pilareen arteko distantzia	11 m
Markesinaren bataz-besteko altuera	6,2 m
Estalkiaren malda	2°
Estalkiaren azalera	589 m ²

Taula 22: Markesinaren dimentsioak



Irudia 1: Markesina 3Dn

4.2 Materialak

4.2.1 Altzairu estrukturala

Profil ijeztuetarako S275 altzairu estrukturala erabiltzen da, erresistentzia karakteristikoa $f_{yk}=275 \text{ N/mm}^2$ duena. Kalkulurako erresistentzia CTE DB SE-AE arauko segurtasun koefizientea ezartzen da:

$$f_{yd} = \frac{f_{yk}}{\Psi_M} = \frac{275 \text{ N/mm}^2}{1,05} = 261,9 \text{ MPa}$$

Profil konformatuetarako S235 altzairu estrukturala erabiltzen da, erresistentzia karakteristikoa $f_{yk}=235 \text{ N/mm}^2$ duena. Petraletan erabiltzen da altzairu hau. Kalkulurako erresistentzia CTE DB SE-AE arauko segurtasun koefizientea ezartzen da:

$$f_{yd} = \frac{f_{yk}}{\Psi_M} = \frac{235 \text{ N/mm}^2}{1,05} = 223,8 \text{ MPa}$$

Altzairu hauen elastikotasun-muga $E=2140672,8 \text{ N/mm}^2$ da.

4.2.2 Barretako altzairua

Hormigoi armatuan erabilitako barrak B500S altzairukoak dira, erresistentzia karakteristikoa $f_{yk}=500 \text{ N/mm}^2$ dutenak. Kalkulurako erresistentzia EHE-08 arauko segurtasun koefizientea ezartzen da:

$$f_{yd} = \frac{f_{yk}}{\Psi_M} = \frac{500 \text{ N/mm}^2}{1,05} = 434,78 \text{ MPa}$$

Altzairuaren elastikotasun-muga $E=2000000 \text{ N/mm}^2$ da.

4.2.3 Hormigoi estrukturala

Espainiar Gobernuko Sustamen Ministerioren Hormigoiaren Komisio Iraunkorraren arabera, Getxon zimendapen armaduren korrosioarekiko esposizio orokorraren klasea IIIa da, kostaldetik hurbil dagoen eraikuntza baita. Ez du esposizio espezifikorik, ez baitu erosiorik, ez izozterik, ez sustantzia kimiko arriskutsurik inguruan. Klasearen arabera, EHE-08-k hormigoiaren erresistentzia karakteristikoa gomendatzen du.

Parámetro de dosificación	Tipo de hormigón	Clase de exposición													
		I	IIa	IIb	IIIa	IIIb	IIIc	IV	Os	Oa	Oc	H	F	E	
Resistencia mínima (N/mm ²)	Masa	20	—	—	—	—	—	—	—	30	30	35	30	30	30
	Armado	25	25	30	30	30	35	30	30	30	35	30	30	30	
	Pretensado	25	25	30	30	35	35	35	30	35	35	30	30	30	

Taula 23: Hormigoiaren erresistentzia karakteristikoa

Exigitutako erresistentzia minimoa 30 N/mm² da 23. taularen arabera. Hortaz, kalkulurako erresistentzia egoera iraunkor edo iragankorrerako EHE-08-ren arabera hurrengoa da:

$$f_{cd} = \frac{f_{ck}}{\Psi_c} = \frac{30 \text{ N/m}}{1,5} = 20 \text{ MPa}$$

EHE-08 arauak hormigoiaren trinkotasuna Biguna eta bere ale-tamaina 40 mm-koa izatea gomendatzen du.

Laburbilduz, zimendapenerako aukeratutako hormigoia HA-30/B/40/IIIa da.

4.2.3.1 Hormigoiaren estaldura

Hormigoiaren estaldura armaduraren kanpo azalera eta hormigoiaren kanpo azaleraren arteko distantzia da. Estaldura minimoa armaduraren puntu guztietan bete behar da. Hau bermatzeko, arauak estaldura nominal bat definitzen du:

$$R_{nom} = r_{min} + \Delta_r \quad (25)$$

- R_{nom} : Estaldura nominala. (mm)
- r_{min} : Estaldura minimoa. (mm)
- Δ_r : Estaldura marjina. 10 mm-ko balora hartu da, ezin baita exekuzio kontrolik bermatu. (mm)

Estaldura minimoa 24. taularen arabera kalkulatzen da. ‘Gainontzeko zementuak’ erabili denez eta proiektuaren bizitza erabilgarria 50 urtekoa denez, 45 mm-ko estaldura minimoa definitu da.

Hormigón	Cemento	Vida útil de proyecto (r_p) (años)	Clase general de exposición			
			IIIa	IIIb	IIIc	IV
Armado	CEM III/A, CEM III/B, CEM IV, CEM II/B-S, B-P, B-V, A-D u hormigón con adición de microsilice superior al 6% o de cenizas volantes superior al 20%	50	25	30	35	35
		100	30	35	40	40
	Resto de cementos utilizables	50	45	40	*	*
		100	65	*	*	*
Pretensado	CEM II/A-D o bien con adición de humo de sílice superior al 6%	50	30	35	40	40
		100	35	40	45	45
	Resto de cementos utilizables, según el Artículo 26°	50	65	45	*	*
		100	*	*	*	*

Taula 24: Estaldura minimoa

Beraz, hormigoiaren estaldura:

$$R_{nom} = 45 \text{ mm} + 10 \text{ mm} = 55 \text{ mm} \quad (25)$$

55 mm-ko estaldura du hormigoi armatuak norabide guztietan.

4.2.4 Garbiketa hormigoia

Garbiketa hormigoiaren funtzioa nagusiak hormigoi armatua isurtzean uraren galerak ekiditea eta hormigonatzearen lehenengo orduetan honen kontaminazioa ekiditea da.

Horretarako, CTE-ak 10 cm-ko lodiera minimo bat ezartzen du garbiketa hormigoientzat. Hormigoi honen topologia HL-150/B/20 da.

4.3 Akzioak

Egituraren dimentsionamendurako aplikatutako kargak hauek dira:

- Karga iraunkorrak
- Erabilpen gainkarga
- Haizea
- Elurra

Akzio guzti horien kalkulurako CTE DB SE-AE araua erabili da. Akzio sismikoak ez dira kontuan hartu garrantzi moderatuko eraikuntza baita eta arrisku sismiko baxuko gunean kokatuta baitago markesina.

4.3.1 Akzio iraunkorrak

Egituran eragina duten akzio iraunkorrak, profil estrukturalaz aparte, 25. taulan laburtzen dira:

Elementua	Karga [kN/m ²]
Profil estrukturalak	Elementuaren araberakoa
Panel fotovoltaikoak	0,0337
Panelen egiturak	0,0099
Estalkia	0,0525

Taula 25: Akzio iraunkorrak

Akzio iraunkorrek 0,0961 kN/m²-ko karga suposatzen dute, hau da, 0,0098 t/m². CYPE 3D programan 0,01 t/m²-ko karga erabili da, torloju, kable eta beste edozein gailuen pisuak kontsideratuz.

4.3.1.1 Panel fotovoltaikoak

Amerisolar 24 V 330 W moduluek 22,5 kg-ko pisua dute bakoitzak eta 90 panel kokatuko dira 589 m²-ko estalkian, beraz:

$$G_{k,panel} = 0,0377 \text{ kN/m}^2$$

4.3.1.2 Panelen egiturak

Aluminiozko egiturak dira SUNFER ENERGY CVE915XL eta SUNFER ENERGY KH915. CVE915XL egiturak hirukika banatzen dira, hauek izanik KH915 egituretan euskarritzen direnak. Orduan, CVE915XL egituren pisua 6 kg-koa hirukiko suposatuta da, bere dimentsioetan oinarrituz. KH915 egiturak, berriz estalkiarekiko planokideak direnak, bi edo hiru hiruko elkartzeko erabiltzen dira. Bi hiruki elkartzen dituzten KH915-en pisua 5 kg-koa dela suposatuta da, eta hiru hiruki elkartzen dutenena, luzera bikoitzekoak direnak, 10 kg-koa.

Memoria deskribatzaileko 1.6.3.3.5 atalean (Panelen egiturak) azaldu da CVE915XL egituren disposizioa. 10 paneleko 6 egitura daude, 9 paneleko 3 eta 3 paneleko 1. 10 paneleko egiturek 6 hiruki dituzte eta, hortaz, KH915-ko 5 kg-ko 6 egitura. 9 panelekoek, aldiz, 5 hiruki eta, hortaz, KH915-ko 5 kg-ko 2 eta 10 kg-ko egitura bat. 3 panelekoek 2 hiruki eta, hortaz, KH915-ko 5 kg-ko 2 egitura. Egitura guztiak 589 m²-ko estalkian kokatzen dira, beraz:

$$G_{k,pEgitur} = 0,0099 \text{ kN/m}^2$$

4.3.1.3 Estalkia

Estalkirako aukeratu den txapa grekatuak 2 x 1,081 m²-ko dimentsioak dituzte. Horietako 310 txapa kokatu dira, bakoitza 4,7 kg/m²-koa, beraz:

$$G_{k,estalki} = 0,0525 \text{ kN/m}^2$$

4.3.2 Erabilpen gainkarga

Erabilpen gainkarga definitzeko, CTE DB SE-AE arauaren 3.1 taula erabiltzen da.

Categoría de uso		Subcategorías de uso		Carga uniforme [kN/m ²]	Carga concentrada [kN]
A	Zonas residenciales	A1	Viviendas y zonas de habitaciones en, hospitales y hoteles	2	2
		A2	Trasteros	3	2
B	Zonas administrativas			2	2
C	Zonas de acceso al público (con la excepción de las superficies pertenecientes a las categorías A, B, y D)	C1	Zonas con mesas y sillas	3	4
		C2	Zonas con asientos fijos	4	4
		C3	Zonas sin obstáculos que impidan el libre movimiento de las personas como vestíbulos de edificios públicos, administrativos, hoteles; salas de exposición en museos; etc.	5	4
		C4	Zonas destinadas a gimnasio u actividades físicas	5	7
		C5	Zonas de aglomeración (salas de conciertos, estadios, etc)	5	4
D	Zonas comerciales	D1	Locales comerciales	5	4
		D2	Supermercados, hipermercados o grandes superficies	5	7
E	Zonas de tráfico y de aparcamiento para vehículos ligeros (peso total < 30 kN)			2	20 ⁽¹⁾
F	Cubiertas transitables accesibles sólo privadamente ⁽⁴⁾			1	2
G	Cubiertas accesibles únicamente para conservación ⁽⁵⁾	G1 ⁽⁷⁾	Cubiertas con inclinación inferior a 20°	1 ⁽⁴⁾⁽⁶⁾	2
		G2	Cubiertas con inclinación superior a 40°	0,4 ⁽⁴⁾	1

Taula 26: CTE DB SE-AE arauaren 3.1 taula

26. taulari erreparatuz, soilik estalkiaren kontserbaziorako sartuko den estalkia da, eta 20° baino malda txikiagoa du, beraz, 1 kN/m²-ko erabilpen gainkarga kontsideratu da, tonatan adierazita 0,102 t/m² dena.

4.3.3 Elurra

Eraikin edo estalki batean eragiten duten kargen distribuzioa eta intentsitatea klimaren, prezipitazio motaren, ingurunearen erliebearen edo estalkiaren formaren menpekoak dira. Hurrengo espresioarekin azalera unitateko elurraren kargaren balioa kalkulatu da, proiektzio horizontalean:

$$q_n = \mu \cdot S_k \quad (26)$$

- q_n : Elur karga. (kN/m²)

- μ : Estalkiaren forma koefizientea. Elurraren irristatzerako eragozpenik ez dagoenean eta haren inklinazioa 30° -koa edo baxuagoa denean $\mu=1$ hartzen da.
- S_k : Elur kargaren balio karakteristikoa. (kN/m^2)

Elur kargaren balio karakteristikoa (S_k) CTE DB SE-AE arauaren 3.8 taulan lortzen da:

Capital	Altitud m	S_k kN/m ²	Capital	Altitud m	S_k kN/m ²	Capital	Altitud m	S_k kN/m ²
Albacete	690	0,6	Guadalajara	680	0,6	Pontevedra	0	0,3
Alicante / Alacant	0	0,2	Huelva	0	0,2	Salamanca	780	0,5
Almería	0	0,2	Huesca	470	0,7	SanSebas- tián/Donostia	0	0,3
Ávila	1.130	1,0	Jaén	570	0,4	Santander	1.000	0,3
Badajoz	180	0,2	León	820	1,2	Segovia	10	0,7
Barcelona	0	0,4	Lérida / Lleida	150	0,5	Sevilla	1.090	0,2
Bilbao / Bilbo	0	0,3	Logroño	380	0,6	Soria	0	0,9
Burgos	860	0,6	Lugo	470	0,7	Tarragona	0	0,4
Cáceres	440	0,4	Madrid	660	0,6	Tenerife	950	0,2
Cádiz	0	0,2	Málaga	0	0,2	Teruel	550	0,9
Castellón	0	0,2	Murcia	40	0,2	Toledo	550	0,5
Ciudad Real	640	0,6	Orense / Ourense	130	0,4	Valencia/València	0	0,2
Córdoba	100	0,2	Oviedo	230	0,5	Valladolid	690	0,4
Coruña / A Coruña	0	0,3	Palencia	740	0,4	Vitoria / Gasteiz	520	0,7
Cuenca	1.010	1,0	Palma de Mallorca	0	0,2	Zamora	650	0,4
Gerona / Girona	70	0,4	Palmas, Las	0	0,2	Zaragoza	210	0,5
Granada	690	0,5	Pamplona/Iruña	450	0,7	Ceuta y Melilla	0	0,2

Taula 27: CTE DB SE-AE arauaren 3.8 taula

27. taularen arabera, Bilbon, Getxotik hurbilen dagoen hiriburuan, $0,3 \text{ kN/m}^2$ -ko karga suposatzen da, proiektzio horizontalean. Beraz, elurraren karga hurrengoa da:

$$q_n = \mu \cdot S_k = 1 \cdot 0,3 \text{ kN/m}^2 = 0,3 \text{ kN/m}^2 \quad (26)$$

$0,3 \text{ kN/m}^2$ -ko elur karga kontsideratu da, tonatan adierazita $0,031 \text{ t/m}^2$ dena.

4.3.4 Haizea


Haizeak sortzen dituen presioen balio eta distribuzioa eraikinaren forma eta dimentsioen, estalkiaren iragazkortasun eta ezaugarrien eta haizearen direkzio eta intentsitatearen menpekoak dira. Estalkiarekiko elkarzuta den karga da hau, hurrengo espresioarekin kalkulatu dena:

$$q_h = q_b \cdot c_e \cdot c_p \quad (27)$$

- q_h : Haize karga. (kN/m^2)
- q_b : Haizearen presio dinamikoa. (kN/m^2)
- c_e : Esposizio koefizientea.
- c_p : Presio koefizientea.

4.3.4.1 Haizearen presio dinamikoa

Kokapen geografikoak definitzen du haizearen presio dinamikoaren balioa. CTE DB SE-AE dokumentuaren D eranskinak ematen duen Espainiako mapan, 2 irudian aurkezten dena, hiru zonalde bereizten dira: A, B, eta C, hauen presio dinamikoak $0,42 \text{ kN/m}^2$, $0,45 \text{ kN/m}^2$ eta $0,52 \text{ kN/m}^2$ dira, hurrenez hurren.



Irudia 2: Haizearen presio dinamikoko zonaldeak

Markesina Bizkaian dago kokatua, mapako C zonaldean dagoena, beraz: haizearen presio dinamikoa hurrengo balioa du:

$$q_b = 0,52 \text{ kN/m}^2$$

4.3.4.2 Esposizio koefizientea

Koefiziente honek erliebeak eta lurraren topografiak duten eragina kontuan hartzen du, ingurunearen laztasun graduaren bitartez. Eraikinaren altueraren araberakoa da ere bai, eta CTE DB SE-AE arauaren hurrengo taularekin kalkulatzen da:

	Grado de aspereza del entorno	Altura del punto considerado (m)							
		3	6	9	12	15	18	24	30
I	Borde del mar o de un lago, con una superficie de agua en la dirección del viento de al menos 5 km de longitud	2,4	2,7	3,0	3,1	3,3	3,4	3,5	3,7
II	Terreno rural llano sin obstáculos ni arbolado de importancia	2,1	2,5	2,7	2,9	3,0	3,1	3,3	3,5
III	Zona rural accidentada o llana con algunos obstáculos aislados, como árboles o construcciones pequeñas	1,6	2,0	2,3	2,5	2,6	2,7	2,9	3,1
IV	Zona urbana en general, industrial o forestal	1,3	1,4	1,7	1,9	2,1	2,2	2,4	2,6
V	Centro de negocio de grandes ciudades, con profusión de edificios en altura	1,2	1,2	1,2	1,4	1,5	1,6	1,9	2,0

Taula 28: Esposizio koefizientea CTE DB SE-AE-ren arabera

Gorrondatxe ingurunearen laztasun gradua 'itsas alboa' da, 28. taulako lehenengoa. Markesinaren punturik altuena 2,665 m da, eta taulako altueretatik txikiena 3 m, beraz, balio hau hartuko da erreferentziatzat. Orduan, esposizio koefizienteak hurrengo balioa du:


$$C_e = 2,4$$

4.3.4.3 Presio koefizientea

Koefiziente hau estalkiak haizearekiko duen forma eta orientazioaren araberakoa da. Markesinek fatxadarik ez izatean, ez dute haizearen barne presiorik jasango, soilik kanpo presioa bazik. Presio hau haizearen norabidearen, eraikinaren formaren, kontsideratuko elementuaren posizioaren eta haren azaleraren menpe dago.

Presio koefiziente honek markesinaren bi aurpegietan, behekoan zein goikoan, duen eragina kontuan hartzen du. Koefizientearen balio negatiboek esan nahi dutena da haizeak markesina altxatzeko joera duela, eta positiboek, aldiz, kontrakoa. Dimentsionaketarako bi egoerak kontuan hartu behar dira, presioko eta sukzioko koefizienteak bereiziz.

Markesina baten azpiko haizearen fluxuak jasan ditzakeen oztopoak kalkulurako funtsezkoak dira. Oztopo gradu hori oztopo faktorearen bitartez, φ , deskribatzen da. Faktore hau markesina azpiko azalera totalaren eta oztopaturiko azaleraren arteko erlazioa da. Bi azalera horiek haizearekiko elkarzut den planoan kontsideratzen dira. 29. taula da ur bakarreko markesinen presio koefizienteak CTE DB SE-AE dokumentuak eskaintzen duena.



		Coeficientes de presión exterior			
		$c_{p,10}$			
Pendiente de la cubierta α	Efecto del viento hacia	Factor de obstrucción φ	Zona (según figura)		
			A	B	C
0°	Abajo	$0 \leq \varphi \leq 1$	0,5	1,8	1,1
	Arriba	0	-0,6	-1,3	-1,4
	Arriba	1	-1,5	-1,8	-2,2
5°	Abajo	$0 \leq \varphi \leq 1$	0,8	2,1	1,3
	Arriba	0	-1,1	-1,7	-1,8
	Arriba	1	-1,6	-2,2	-2,5
10°	Abajo	$0 \leq \varphi \leq 1$	1,2	2,4	1,6
	Arriba	0	-1,5	-2,0	-2,1
	Arriba	1	-2,1	-2,6	-2,7
15°	Abajo	$0 \leq \varphi \leq 1$	1,4	2,7	1,8
	Arriba	0	-1,8	-2,4	-2,5
	Arriba	1	-1,6	-2,9	-3,0
20°	Abajo	$0 \leq \varphi \leq 1$	1,7	2,9	2,1
	Arriba	0	-2,2	-2,8	-2,9
	Arriba	1	-1,6	-2,9	-3,0
25°	Abajo	$0 \leq \varphi \leq 1$	2,0	3,1	2,3
	Arriba	0	-2,6	-3,2	-3,2
	Arriba	1	-1,5	-2,5	-2,8
30°	Abajo	$0 \leq \varphi \leq 1$	2,2	3,2	2,4
	Arriba	0	-3,0	-3,8	-3,6
	Arriba	1	-1,5	-2,2	-2,7

Taula 29: Ur bateko markesinaren presio koefizientea CTE DB SE-AE-ren arabera

Markesinaren malda $\alpha=2^\circ$ da, beraz $\alpha=0^\circ$ eta $\alpha=5^\circ$ malden koefizienteak interpolatu dira, behar dena lortzeko. Presio zein sukzioko koefizienteak lortu behar direnez, presiorako $0 \leq \varphi \leq 1$ eta sukziarako $\varphi=1$ -eko oztopo faktoreak erabili dira, egoera bakoitzerako kaltegarrienak direnak.

Kalkulurako beharrezkoak diren parametroen eta markesinaren azalera desberdinen balioak hauek dira:

- $b = 62 \text{ m}$
- $d = 9,5 \text{ m}$
- $A = 376,96 \text{ m}^2$

- $B = 58,9 \text{ m}^2$
- $C = 47,12 \text{ m}^2$

Orduan, $0 \leq \varphi \leq 1$ oztopo faktorearekin interpolatuz lortzen diren azalerako presio koefizienteak hauek dira:

C_{pA}	0,62
C_{pB}	1,92
C_{pC}	1,18

Taula 30: Haize presio koefizienteak

Lortutako balioak haztatuz markesinaren estalki osoak duen presio koefizientea lortzen da:

$$C_p = \frac{0,62 \cdot 376,96 \text{ m}^2 + 2 \cdot 1,92 \cdot 58,9 \text{ m}^2 + 2 \cdot 1,18 \cdot 47,12 \text{ m}^2}{376,96 \text{ m}^2 + 2 \cdot 58,9 \text{ m}^2 + 2 \cdot 47,12 \text{ m}^2} = \mathbf{0,9696} \quad (28)$$

Eta $\varphi=1$ oztopo faktorearekin interpolatuz lortzen diren azalerako presio koefizienteak hauek dira:

C_{sA}	-1,54
C_{sB}	-1,96
C_{sC}	-2,32

Taula 31: Haize sukzio koefizienteak

Lortutako balioak haztatuz markesinaren estalki osoak duen sukzio koefizientea lortzen da:

$$C_s = \frac{-1,54 \cdot 376,96 \text{ m}^2 + 2 \cdot -1,96 \cdot 58,9 \text{ m}^2 + 2 \cdot -2,32 \cdot 47,12 \text{ m}^2}{376,96 \text{ m}^2 + 2 \cdot 58,9 \text{ m}^2 + 2 \cdot 47,12 \text{ m}^2} = \mathbf{-1,7488} \quad (29)$$

Behin presio eta sukzio koefizienteak lortuta, haizearen presio eta sukzio kargen balioak kalkula daitezke.

Haizearen presio karga:

$$q_h = q_b \cdot c_e \cdot c_p \quad (27)$$

$$q_{ph} = 0,52 \text{ kN/m}^2 \cdot 2,4 \cdot 0,9696 = 1,2101 \text{ kN/m}^2$$

Haizearen presio karga 1,2101 kN/m²-koa da, hau da, 0,1233 t/m², estalkiaren norabide elkarzutarekin.

Haizearen sukzio karga:

$$q_h = q_b \cdot c_e \cdot c_p \quad (27)$$

$$q_{sh} = 0,52 \text{ kN/m}^2 \cdot 2,4 \cdot -1,7488 = -2,1825 \text{ kN/m}^2$$

Haizearen sukzio karga -2,1825 kN/m²-koa da, hau da, -0,2225 t/m², estalkiaren norabide elkarzutarekin.

4.4 Egitura metalikoa

Atal honetan azaltzen dira CYPE 3D programatik batu diren egituraren kalkulurako balio guztiak.

4.4.1 Egituren ezaugarriak

Markesinaren profilak altzairu ijestu edo laminatu eta altzairu konformatuaren bitartez egin dira. Erabilitako altzairuen ezaugarriak hauek dira:

Erabilitako materialak							
Material		E (kp/cm ²)	n	G (kp/cm ²)	f _y (kp/cm ²)	a _t (m/m°C)	g (t/m ³)
Tipo	Izendapena						
Altzairu ijestua	S275	2140672.8	0.300	825688.1	2803.3	0.000012	7.850
Altzairu konformatua	S235	2140672.8	0.300	823335.7	2395.5	0.000012	7.850

